

“ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEA” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGUAREN LAPURPEN TAULA

KONTRATUAREN XEDEA	OBRAK: Araxes eskualdeko ikastetxe publikoan igogailua jarri
LIZITAZIO AURREKONTUA	
Zenbakiz	105.683,49 EURO, BEZ KANPO. 127.877,03 EURO, BEZ BARNE
Letraz	Ehun eta bost mila seiehun eta laurogeita hiru euro eta berrogeita bederatzi zentimo, BEZ kanpo Ehun ta hogeita zazpi mila zortziehun eta hirurogeita hamazazpi euro eta hiru zentimo, BEZa BARNE
KALKULATUTAKO BALIOA	116.251,83 EURO, BEZ KANPO. 140.664,73 EURO, BEZ barne
GAUZATZEKO EPEA	Hiru hilabete. Bidezko kasu edo arrazoi bat dela medio luzapen bat eman daiteke 2022ko azaroaren 15a inola ere gaindituko ez duena.
BERMEAREN EPEA	1 urte, obra-harrera jasotzen denetik aurrera.
PROZEDURA	IREKIA, EUOPAR BATASUNEKO PUBLIZITATERIK GABE.
TRAMITAZIOA	ARRUNTA.
KAUDIMEN EKONOMIKOA	Baldintza administratiboen pleguaren 7. baldintza.
KAUDIMEN TEKNIKOA	Baldintza administratiboen pleguaren 8. baldintza.
BEHIN-BEHINEKO BERMEA	EZ.
PREZIOEN BERRIKUSPENA	EZ.
LOTEEN DISEINUA	EZ.
ALDAERARIK ONARTZEN DEN	Ez da onartzen
ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA	Nafarroako Lizitazio Elektronikokoaren Plataformaren bidez aurkeztu beharko da.
ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA	Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, Kontratazio Atarian lizitazio iragarkia argitaratu eta biharamunetik aurrera.

I. "ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEA" IZENeko OBRAK KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Hona hemen baldintza hauetan zehazten den kontratuaren xedea: "Araxes eskualdeko ikastetxe publikoan igogailua jartzea" izeneko obra egitea Betelun.

Honako hau da kontratu honen obraren kodifikazioa, Europako Batzordearen Kontratuen Hiztegi Amankomunaren nomenklaturarekin bat eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen eranskinarekin bat:

45313100-5 Igogailuak jartzea

Jose Miguel Rodriguez Ezpeletak prestatutako proiektuari jarraituz egingen dira obrak.

2.- ESLEITZEKO PROZEDURA.

Plegu honen xedeko kontratazioa esleitzeko modua prozedura irekia izanen da, Europar Batasuneko atalasearen azpikoa (tramitazio arrunta), Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatuarekin bat.

3.- KONTRATAZIO ORGANOA ETA KONTRATUA KUDEATZEKO UNITATEA.

Hau da kontratuaren kontratazio organoa: Beteluko Udalbatza.

Kontratua kudeatzen duen unitatea: Udaleko idazkaria

4.- KONTRATURAKO KALKULATUTAKO BALIOA ETA LIZITAZIO AURREKONTUA.

Obra kontraturako kalkulatzeko balioa 116.251,83 eurokoa da, BEZ kanpo.

Kontratuaren lizitazioaren aurrekontua 105.683,49 eurokoa da, BEZ kanpo (127.877,03 euro, BEZ barne). Bazter utziko dira aurrekontu hori gaingitzen duten proposamenak.

Kontratua esleitzeko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da 2022ko ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko.

5.- GAUZATZEKO EPEA

Obra osoa egiteko epea hiru hilabetekoa izango da, zuinketaren egiaztapen-akta izenpetzen denetik aurrera; gehienez ere zazpi eguneko epean egin beharko da akta hori, kontratua formalizatzen denetik aurrera. Luzapena eman ahal izango da, baina inolaz ere ez 2022ko

azaroaren 15a baino luzeagoa, justifikatutako kasu edo arrazoietan.

6.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Honako hauek kontratatzen ahal dute Administrazioarekin: pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoak nahiz atzerrikoak, obratzeko gaitasun osoa badute, ez badaude sartuta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean kontratatzeke ezarritako debeku edo bateraezintasun kasuetan, ez badute interes gatazkarik, eta frogatzen badute behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela kontratua gauzatzeko.

Pertsona juridikoek, esleipen-hartzaileak izateko, berezkoak izan behar dituzte delako kontratuetan egin beharrekoak beren xede, esparru edo jardueraren barnean, kasuan kasuko Estatutuetan edo eratze erregelamenduan xedatzen denaren arabera.

Aldi baterako enpresa-elkarteek zilegi dute kontratatzea eta, halakoetan, erantzukizun solidarioa izanen dute. Elkarrekin ordezkari edo ahalorde bat izendatuko dute, behar adinako gaitasuna izanen duena kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak erabiltzeko, hura iraungi arte, ezertan eragotzi gabe kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak egotea. Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkartearen parte hartzen duten enpresek adierazi beharko dute nork osatzen dituzten eta zer egoeratan, bakoitzak zenbateko parte-hartzea duen, eta bere gain hartzen dutela aldi baterako elkartearen formalki eratzeke konpromisoa, kontratuaren esleipena jasoz gero.

Batera parte hartzen duten lizitatzailerik ere kontratatzen ahal dute. Halakoetan, erantzukizun solidarioa izanen dute. Parte hartze hori formalizatzeko, agiri pribatu bat aurkeztuko da, non adierazi beharko baita batera parte hartzeke borondatea dutela, bakoitzak zenbateko parte-hartzea duen eta elkartearen ordezkari edo ahalorde bat izendatu dela, behar adinako botereak dituen kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak erabiltzeko, hura iraungi arte, ezertan eragotzi gabe kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak egotea. Halaber, plegu honek ezartzen dituen baldintzak ere bete beharko ditu.

Lizitazio eskaintza batera aurkeztzen duten enpresek ezin izanen dute proposamenik banaka aurkeztu.

7.- KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Agiri hauek aurkeztuz justifikatuko da kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kontratua egiteko:

A) Kontratuaren xede diren jardueren (igogailuak instalatzea) arloko negozio-bolumenari buruzko deklarazioa, gehienez ere azken hiru ekitaldiei buruzkoa, esleipendunaren sortze-data eta jardueren hasiera-data kontuan hartuta; urte bakoitzeko negozio-bolumenak 150.000,00 eurokoa edo gehiagokoa izan beharko du, BEZik gabe.

B) Finantza-erakundeek egindako aitorpenak.

8. KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, kontratu honen xede den obraren mota bereko obra bat ondo egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, baldin eta lizitatzailari azken zortzi urteetan esleitu bazaio, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hasita, eta esleipenaren zenbatekoa 70.000 eurokoa edo gehiagokoa bada (BEZa kanpo).

Exekuzio onaren ziurtagirian, egindako obra mota adieraziko da, haren norainokoaren deskribapen zehatza eginez, eta berariaz aipatuko da obra hori lanbidea arautzen duten arauen arabera egin zela eta normalean ondo amaitu zirela. Ziurtagiri horretan jasoko dira, halaber, kontratuaren esleipen-zenbatekoa (BEZik gabe), esleipen-data eta obra egiteko lekua.

Puntu honetan azaldutako baldintzak betetzen ez badira, lizitatzailaren gaitasun teknikoa edo profesionala ez dela egiaztatu ulertuko da.

Kaudimena azpikontratazioaren bidez egiaztatzen bada, lizitatzailak azpikontratistekin kontratua gauzatzeko konpromiso formal bat dagoela egiaztatzen duen dokumentu bat aurkeztu beharko du, eta kasu horretan guztien kaudimena batuko da. Halaber, egiaztatu beharko du azpikontratistek badituztela kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak.

9.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatzaila bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake gehienez. Halaber, inork ezin izanen du beste lizitatzaila batzuekin batera proposamenik izenpetu baldin eta banakako proposamena aurkeztua badu, ezta elkarre horietako batean baino gehiagotan agertu ere. Hala jokatzek, bai eta lotura duten enpresek eskaintzak batera aurkezteak ere, ekarriko du izenpetutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Eskaintzek osoak beharko dute izan eta pleguan eta obra proiektuan ezarritako errekerimendu guztiei erantzun beharko die, obren gauzatzea erabilpen baldintza egokietan egiteko moduan.

Proposamena aurkezteak berarekin dakar lizitatzailak baldintzarik gabe onartzen duela lizitazioaren pleguko baldintza guztien edukia, salbuespenik edo erreserbarik egin gabe.

Eskaintza osatzen duten dokumentuak soilik Nafarroako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez aurkez daitezke. Plataforma hori Nafarroako kontratazio atariko (www.contrataciones.navarra.es) lizitazio iragarkian izanen da eskuragarri.

Modu berean, interesatuekin izan daitezkeen komunikazio eta izapidetako gainerako jarduketak PLENA bidez izanen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitazio iragarkian ezarriko da eta gutxienez, Nafarroako Kontratazio Atarian iragartzen denetik zenbaturik 20 egun naturalekoa izan beharko du.

Enpresa lizitatzailerak bere eskaintza hertsitzen duenean, bere edukiaren azterna –laburpen kriptografikoa- sortuko da, eskaintzaren egiaztatzailea izanik.

Lizitatzailerak eskaintza aurkezterakoan PLENAn arazorik* balu, eta aipaturiko azterna –laburpen kriptografikoa-, eskaintzak aurkezteko epean, Kontratazio Atarian kontakturako jarri den kontratazio organoaren korreo elektronikora bidaliko balitz, eskaintza osoa Plena bidez bidaltzeko eta aurkezpena erabat osatua dela ulertzeko 24 orduko epe gehigarria izanen du. Baldintza hauek bete gabe ez da onartuko epetik kanpo aukezturiko eskaintzarik.

*zentzu honetan eskaintzen pisua zenbat eta handiago izan, aurkezpena osatzeko behar den denbora orduan eta handiagoa izanen dela ohartarazi nahi da. Hori bestelako baldintza batzuk kontuan hartu gabe, hala nola, konexioaren kalitatea dela eta igoera abiadura txikiagoa edo beste batzuk.

Beharrezkoa da aurkezpena eginen den ekipoko orduak gehienez ere 5 minutuko oker marjinarekin bat egitea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuaren zerbitzariak Denbora Unibertsal Koordinatua erabiltzen dute erreferentzia bezala, eta hau da erreferentziazko laborategi internazionalen denbora eskala unibertsal gisa erabilitakoa, +/- 1 segundoko zehaztasunarekin. Hau da, beraz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

- Jatorrizko ordutegi iturria: hora.roa.es (Armadaren Institutu eta Behatoki Errealak: San Fernando-Cadizko bi zerbitzari eta Madrilaren kokaturiko hirugarren bat)

- Bigarren mailako ordutegi iturriak:

o canon.inria.fr, INRIA, Paris

o i2t15.i2t.ehu.es , UPV-EHU

Gutunazalak irekitzerakoan azterna jaso den epea kanpo aukezturiko eskaintzarik antzemanen balitz, onartu eta ireki eginen da betiere azternak bat egiten eta 24 orduko epe gehigarri horretan jaso bada.

Aldiz, azternak ez balu bat eginen edo eskaintza 24 orduko epe gehigarri horretan jasoko ez balitz, eskaintza baztertu eta ez da inoiz bere edukia irekiko.

Eskaintza bat epea kanpo aurkeztu eta enpresa edo erakunde lizitatzailerak aurkezpenean arazo teknikoak argudiatuko balitu, eskaintzak aurkezterakoan plataforman arazo teknikorik izan zen

egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu normalean intzidentzia teknikorik gertatu balitz soilik onartuko da eskaintza. Lizitatzaillearen ezjakintasunak eta plataformaz bestelako arazo teknikoek ez dute eskaintzaren epea kanpoko aurkezpena justifikatuko eta ondorioz, baztertea ekarriko du.

10. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Kontratazio Atariko lizitazio iragarkitik Nafarroako Lizitazio Elektronikoko Plataformako (gaztelaniazko PLENA) gunera sar daiteke, eta bertan, lizitazioan interesa izan dezakeen edozein pertsonak gutunazal digital bidez eskaintzak prestatu eta aurkezteko eskritorioko aplikazioa deskarga dezake. Aplikazio hau behin bakarrik deskargatu behar da eta PLENA plataformaren eraginpean dagoen edozein erakundek egin dezakeen edozein lizitaziorako balioko du.

Eskaintzak lizitatu behar duenaren eskritorioan zifratzen dira zifratze mekanismo estandarrak erabiltza eta behin aurkezturik, gordailu seguru batean gordeko dira.

Eskaintza ziurtagirien zerbitzuen mailegatzaille batek lege emandako eta dokumentuaren, eskaintzaren eta honi erantsitako gainerako dokumentuen identitatea eta osotasuna bermatuko duen elektronikoki errekonozituriko sinadura bidez sinatu beharko da, sinadura elektronikoki buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearekin eta kontratazio publiko eta elektronikoki buruzko gainerako xedapenekin bat.

Eskaintza elektronikoki erantsen den fitxero bakoitzagatik baimentzen den tamaina 50 MBkoa da. Eskaintzaren tamaina osoak, hau osatzen duten dokumentazioarekin, 100 MBko gehienezko tamaina izan behar du. PLENAk ez du eskaintzara erants daitezkeen artxiboen zenbatekoan mugarik ezartzen.

Eskaintzara erantsen diren dokumentuetarako PLENAk onartzen dituen formatuak, normalean erabiltzen direnak dira (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip.), eta neurri alternatibo gisa, beste formatu batzuetako artxiboak eransteko, artxibo trinko (ZIP) batean bil daitezke.

Plataformaren inprimakian sartutako datu objektiboen eta irizpide bakoitzaren oinarri den erantsitako dokumentuen artean desadostasuna egon behar balitz, enpresak, erakundeak edo ordezkaria boterea duenak elektronikoki sinaturiko dokumentu eta eranskinek izan behar dute lehentasuna.

Eskaintzak PLENAn ezarritako esturkturarekin bat aurkeztuko da eta 3 gutun-azal izan behar ditu, honela identifikaturik:

- 1. gutunazala. Dokumentazio administratiboa.
- 2. gutunazala. Formula bidez zenbatu ezin diren irizpideei dagokien dokumentazioa.
- 3. gutunazala- Formula bidez zenba daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa.

Pertsona lizitatzailleak beharrezko neurriak hartu beharko ditu proposamenen izaera sekretua bermatzeko. Gutunazalak ireki gabe ezinen da inola ere haien edukia jakin. Hala ez balitz automatikoki geldituko da lizitaziotik kanpo. Era berean, 1. eta 2. gutun-azaletan eskaintza ekonomikoa edo formula bidez kuantifikatzen ahal diren irizpideak aipatzeak ekarriko du proposamena ez onartzea edo bazter uztea.

Eskaeran, aurkezten den lizitatzaillea identifikatuta agertuko da, eta berariaz jasoko da honako hau: posta helbidea, telefonoa, faxa eta posta elektronikoa, jakinarazpenak egiteko, plegu honen I. eranskinaren arabera.

Behar bezala beteko den eskaintzarekin edo onarpen eskaerarekin batera, proposamenak gutun-azal bakar batean aurkeztuko dira, eta hor beste hiru sartuko. Den-denak itxita eta lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatuta egonen dira, eta honela identifikatuko: “1. gutun-azala: Dokumentazio administratiboa”, “2. gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa” eta “3. Gutun-azala: Formula bidez kuantifikatzen ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa.”

Gutun-azalek agiri hauek eraman behar dituzte:

1. gutun-azala: “Dokumentazio administratiboa”.

Agiri hauek sartu behar dira ezinbestez:

1. Lizitatzaille(ar)en identifikazioa. Hura pertsona fisikoa izan daiteke, edo baterako parte-hartzea, pertsona juridikoa edo aldi baterako enpresa-elkartea. Orobat, lizitatzaillearen posta elektronikoaren helbidea aurkeztuko da. Aipaturiko guzia I. eranskineko ereduaren arabera egingen da.
2. Lizitatzaillearen erantzukizuneko adierazpena, edo, bestela haren ordezkariarena, zehazteko betetzen direla kontratatzeke eskatzen diren baldintzak. Adierazpen hori II. eranskinaren arabera izanen da.
3. Batera parte hartzen duten lizitatzailleek edo aldi baterako enpresa-elkarte batek izenpetzen badu proposamena, horietako bakoitzak sinatu beharko du erantzukizuneko adierazpena, eta, gainera, agiri pribatu batean adieraziko da batera parte hartu nahi dutela, zehaztuz bakoitzak zer portzentajerekin parte hartzen duen; ordezkari edo ahalorde bat izendatuko da, ahalmenak izanen dituen eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak konplitzeko, hura iraungi arte. Agiri hori bai parte hartzen duten enpresek bai ahalordeak sinatu beharko dute.
4. Azpikontratazioaren kasuan, lizitatzailleak azpikontratisten zerrenda bat aurkeztu

beharko du, eta, agiri batekin, frogatu konpromiso formal bat duela haiekin kontratua gauzatzeko.

2. gutun-azala: "Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa".

Memoria teknikoa: Prozeduran balioetsiko diren alderdiei buruzko dokumentazioa jasoko du, formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak salbu. Dokumentazioa gehienez ere A4 tamainako 10 orrialdetan gehi A3 tamainako bi orrialdetan aurkeztuko da, esleipen irizpidetan zedarritutako ordenarekin bat. Dokumentu horrek baloragarriak diren alderdien azalpen zehatz eta laburtua edukiko du eta orokortasunen erabilera saiheztiko du. Lizitatzailerak azaldutakoa egiaztatzeko beharrezkoa dela ulertuko balu, eranskin bat edo gehiago sar ditzake. Eranskin hauek orden bera izanen dute. (Nolanahi dela eranskinen gehienezko hedadura 5 orrialdekoa izanen da)

3. gutun-azala: "Formula bidez kuantifikatzen ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa". III. Eranskinaren arabera

- 1) Proposamen ekonomikoa.
- 2) Gizarte irizpideak.

11. ESKAINTZA BAXUEGIAK.

Eskaintza bat baxuegitzat joko da lizitazio aurrekontuaren %30ekoa edo hortik beherakoa denean. Halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Kasu guztietan, eskaintzak bazter utziko dira egiaztatzen bada baxuegiak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzeagatik edo araudia ez betetzeagatik ingurumen, gizarte edo lan arloan, Estatukoa edo nazioartekoa izan, sektoreko hitzarmen indardunak barne.

12.- KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaiari dagokio proposamenak irekitzea eta Legeak esleitutako gainerako eginkizunak betetzea. Honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria:

- Lehendakaria: Miguel Javier Recalde Goldaraz. Beteluko Udaleko Alkatea

Bokalak:

- 1. bokala: Teodoro Otamendi Artola. Beteluko Udaleko zinegotzia.
- 2. bokala: Jose Miguel Rodriguez Ezpeleta. Proiektuaren egile eta zuzendaria.
- 3. bokala: Asier Elizalde Zubillaga. Beteluko Udaleko zinegotzia
- 4. bokala: Joanes Aleman Ollo. Beteluko Udaleko Idazkaria.

Lizitatzailleek 1. gutun-azalean garaiz eta behar den moduan aurkeztutako dokumentazioa sailkatuko du aldez aurretik Kontratazio Mahaiak, ekitaldi pribatu batean, egiaztatzeko onartuak izateko baldintzak betetzen dituztela.

Mahaiak bost egun naturaletik gorako epe bat eman dezake, akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko. Akatsak zuzentzeko epea iraganez gero informazioa bete edo konpondu gabe, eskatu bezala, dagokiona prozeduratik kanpo geldituko da. Horren berri jaso beharko da erregistro batean.

Dokumentazio administratiboa sailkatu ondoren, Kontratazio Mahaiak onartu diren enpresen 2. gutun-azala ("Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki eta baloratuko du, zehaztutako irizpideen arabera behar bezala haztatu diren esleipen irizpideei jarraituz.

Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa balio-judizioen bidez aplikatzekoak diren irizpideei buruzko dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren irekiko da.

Eskaintzaren zati hau ireki aurretik, Kontratazio Mahaiak bertaratutakoei jakinaraziko die lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioaren emaitza, onartutako lizitatzailleak, onartu ez direnak, ez onartzeko arrazoiak eta gainerako irizpideetan lortutako balorazioa adieraziz.

Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamenaren xede den lizitatzailleari jakinaraziko dio.

13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleitzeko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

- A. Eskaintza teknikoa.....20 puntu arte
- B. Gizarte irizpidea 10 puntu arte
- C. Eskaintza ekonomikoa.....70 puntu arte

A. Eskaintza teknikoa (Orik 20 puntu arte)

Honakoa balioetsiko da:

1. Obra gauzatzeko problematikaren azterketa eta arazo hori konpontzeko planteatzen diren neurriak (gehienez 15 puntu).

Hala badagokio, honako hauek aztertuko dira, ordena honetan:

1.1. Prebentzio-arloko konpromiso gehigarriak. Arriskuak saihesteko edo murrizteko eraikuntza-

prozedura gehigarriak eta/edo erredundanteak. Hezkuntza-komunitatearen segurtasuna bermatzeko neurriak eta baliabideak. (Obrak ikasturtean zehar egiten badira)

1.2 Hondakinak kudeatzeko prozedurak, ahalik eta gehien berreskuratzeko edo berrerabiltzeko.

1.3 Ukipenen jarraipena, kontrola eta konponbidea (era guztietako zerbitzuak eta instalazioak, obrarako sarbideak, partikularrentzako sarbideak, lehendik dauden eraikuntzak, etab.).

1.4. Zerbitzuan jartzea eta probak.

2. Obraren plangintza eta antolamendua (gehienez 5 puntu).

Obra-plan bat izango da, epe partzialak eta osoak izango dituen. Proiektuan jasotako oinarritzko kontzeptu eta obra eta jardura berberetan egituratuta eta banakatuta aurkeztuko da. Lan-programan jardueren hasiera- eta amaiera-datak jasoko dira, baita amaitzeko epe partzialak behar dituzten oinarritzko obrak ere.

B. Gizarte irizpideak (Orik 10 puntu arte)

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da erakunde lizitatzailerak kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duen enplegu-bulegoetan izena emanda dauden langabeen ehunekoa, kontratazio berrien, baje eta ordezkapenen kasuan. Pertsona horien kontratazioan lehentasuna emango zaie gizarteratze-errenta jasotzen dutenei eta egoera ahulean dauden kolektiboari, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituztenei edo gizarte-bazterkeriako arriskuan daudenei; emakumei edo 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako pertsonari.

10 punturekin baloratuko da eskaintzen den ehunekorik handiena duena; nolatan ere, baje edo ordezkapenen kontratazio berrien % 10 edo gehiago izan beharko du, eta gainerako puntuazioa hiruko erregelaren bidez kalkulatu da.

$$PT = 10 \times (PO/PMX)$$

PT: eskaintzak lortu beharreko puntuazioa

PO: lizitatzailerak eskaintako ehunekoa.

PMX: lizitazioan eskaintako gehieneko ehunekoa

C. Eskaintza ekonomikoa (Orik 70 puntura)

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa honela egingen da: $P = 70 \times (1 - 0,9B)$

(1 zenbakiari B (Baja) esponentera 0,9 oinarria igotzetik eratortzen den zenbatekoa kenduko zaio, bi hamarrekotan adieraziz. Azkenik 70ekin biderkatuko da. Eraitza eskaintza ekonomikoaren puntuaketa izanen da).

Donde:

P= eskaintza ekonomikoaren puntuaketa

B= Eskaintako jaitsiera= $100 \times (\text{lizitazioko aurrekontua} - \text{Eskaintako aurrekontua}) / \text{lizitazioko aurrekontua}$.

Ez daiteke ezarritako tipotik gorako eskaintzarik egin; lizitazio zenbatekotik gorako proposamen ekonomikoak prozeduratik baztertuko dira.

Puntuazioa bi hamarrekorekin hartuko da kontuan. Lizitatzailleek aurkezturiko informazio guzia eta eskaintzan hartutako konpromisoak lotesleak izanen dira obraren garapenerako.

14.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Bi eskaintza edo gehiago berdindurik geldituz gero, berdinketa hausteko irizpide hauek erabiliko dira:

Behin behineko langile portzentairik txikiena duena, betiere portzentaia ez bada %10 baino handiagoa.

Berdinketak bere horretan badirau aurreko irizpideak aplikatu ondoan, zozketa bidez hautsiko da.

Berdinketa hausteko irizpideak aplikatzeko, ukitutako enpresa lizitatzaillei eskatuko zaie bost egun naturaleko epean aurkez dezatela beharrezko dokumentazioa.

15.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA ESLEIPEN-HARTAILAK FROGATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA DITUELA

7 egun naturaleko epean, gehienez ere, Kontratazio Mahaiak esleipen proposamena jakinarazten duenetik hasita, lizitatzailleak dokumentazio hau aurkeztu behar du:

1. Lizitatzaillea eta, kasua bada, proposamenaren sinatzailea nor diren egiaztatzen duten agiriak. Honako hauek, hain zuzen:

1.1.- Nortasunaren Agiri Nazionala (edo erregelamenduz hura ordeztzen duena) pertsona fisikoen edo enpresaburu indibidualen kasuan.

1.2.- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eraketaren eskritura edo, kasua bada, aldaketarena, Merkataritza Erregistrokoa, baldintza hori bete behar badu aplikatu beharreko araudiari jarraituz. Hala izan ezean, jarduteko gaitasuna frogatzeko, eraketaren edo aldaketaren eskritura, estatutuak edo jardunari buruzko erregulazioa jasota duen eraketa egintza aurkeztu beharko da, kasuan kasuko erregistro ofizialekoa.

Beste pertsona baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dutenek, behar adinako notario-ahalordea aurkeztuko dute, kasuan kasuko erregistrokoa, aurreko paragrafoko eskrituran ez bada hori ageri, baita ahalordea duenaren Nortasunaren Agiri Nazionala ere, edo hura erregelamenduz ordeztzen duen agiria.

Enpresa izena emanda badago Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan (azaroaren 5eko 236/2007 Foru Dekretuak arautzen du), aski izanen da, enpresaren nortasuna eta ordezkaritza frogatzeko, erregistro horren inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztea (Interneten bidez lortu daiteke), baita hark indarra duela dioen erantzukizuneko adierazpen bat ere.

1.3.- Batera parte hartzen duten lizitatzailerek aurkezten dutenean eskaintza, horietako bakoitzak frogatu beharko ditu bere nortasuna eta jarduteko gaitasuna. Horretarako, agiri pribatu batean zehaztu beharko dute zein diren enpresaburu izenpetzaileen izen-abizenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzak zenbateko parte-hartzea duen eta zer pertsona edo entitate izendatu duten denen ordezkaritza osoa izateko Administrazioaren aurrean kontratuak irauten duen bitartean. Batera parte hartzen duten lizitatzaille guztiek sinatu beharko dute delako agiria, edo kasuan kasuko ordezkariak.

Erantzukizuna solidarioa izanen da beti, eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak zatiezinak.

2. Entitatearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Batera parte hartzen duten enpresaburuek aurkezten badute eskaintza, entitate horietako bakoitzak aurkeztu beharko du IFZ.

3. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa nahiz teknikoa eta profesionala frogatzen duen dokumentazioa, plegu honetan eskatzen den moduan.

4. Lizitatzaillearen erantzukizuneko aitorpena, non jasoko baita betetzen dituela laneko segurtasun eta osasun arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarreko xedapenek ezartzen dituzten betebeharrak.

Propio eta aldi baterako eratutako enpresa-elkarteek aurkezten dituzten eskaintzen kasuan edo batera parte hartzen duten lizitatzailen kasuan, elkarteko kide guzti-guztiak aurkeztu behar dute adierazpen hori.

5. Kasuan kasuko ogasunen ziurtagiri positiboak (Nafarroako Foru Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarenak, frogatzen dutenak lizitatzailak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak dituela. __Ziurtagiri horiek, gehienez ere, proposamenak aurkezteko epea bukatu baino sei hilabete lehenagokoak izanen dira.

Propio eta aldi baterako eratutako enpresa-elkarteek aurkezten dituzten eskaintzen kasuan edo batera parte hartzen duten lizitatzailen kasuan, elkarteko kide guzti-

guztiek aurkeztu behar dituzte ziurtagiri horiek.

6. Jarduera ekonomikoen gainera zergan alta emanda dagoela eta betebeharrak hori bete da frogatzen duen ziurtagiria, Betelutik kanpoko helbidea duten lizitatuak lizitatuaren helbidea Beteluko Udalerrian baldin badago, ofizioz egiaztatuko da.

Beharrezko dokumentazioa epe horren barnean ez aurkezteak ekarriko du lizitatuaren prozesutik baztertzea eta zehapen bat ordainaraztea, kontraturako kalkulatuak zenbatekoaren %5 adinakoa, baita kalte-ordain osagarriak ere, portzentaje hori gaitzen duen ororentzat.

16.- ESLEIPEN PROPOSAMENA

Kontratazio Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, esleipen proposamena eginen dio kontratazio organoari. Proposamenak zehaztuko du zer lehentasun-hurrenkera izanen duten onartu den proposamen bat egin dutenek eta zer puntuazio eskuratu duten esleipen irizpideak aplikatu ondoren.

Esleipen proposamenak ez du eskubiderik sortuko, kontratua esleitzeko ebazpena onesten ez den bitartean.

17.- ESLEIPENA

1.- Esleipena. Kontratazio organoak hilabeteko epean emanen du kontratua esleitzeko ebazpena, formula bidez kuantifikatzen ahal diren eskaintzak jendarean irekitzen direnetik hasita. Ebazpen hori arrazoiak izanen da, eta azalduko du zergatik baztertu diren eskaintzak eta zer ezaugarri eta abantaila dituen hautatutako eskaintzak.

2.- Kontratuaren perfektioa.- Kontratua burutzea. Kontratua betetzerakoan, kontratua esleituko da. Esleipen-egintzaren eraginkortasuna etenda geratuko da 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik zenbatzen hasita. Eskaintza bakarra aurkeztu bada, ez da aipatutako etendura aplikatuko, eta prozedura izapidetzen jarraitu ahal izango da. Esleipen-egintza etenda geratuko da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat jartze hutsagatik, harik eta erreklamazio hori ebatzi arte edo erreklamazio hori ebazteko legeko epea igaro arte.

3.- Hutsik gelditzea.- Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, kontratazio organoak esleipen prozedura hutsik deklaratzeko ahal du, betiere horren arrazoiak emanez.

4.- Esleipenaren jakinarazpena eta publikitatea.- Esleipena, behin ebatzita, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie, eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko, Foru Legearen 102. artikuluan xedatutakoarekin bat.

18.- BERMEAK

Kontratua formalizatu baino lehen, esleipen-hartzaileak esleipenaren zenbatekoaren %4ko bermea (BEZa kanpo) utziko du Udalaren alde.

Kontratistaren betebeharrak konplitzeari lotuko zaio bermea, bermealdiak irauten duen bitartean, eta, batik bat, atzerapenen zehapenak ordaintzeari eta kontratistak kontratua gauzatzean sor litzakeen kalte-galerak konpontzeari.

Halaber, kontratistaren erruz kontratua ebazten denean, bermea konfiskatzen ahal da, sortu diren kalte-galerak berdintzeko behar adinakoa.

Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 70.3 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan era daiteke bermea.

Bermea ofizioz itzuliko da kontratuaren bermealdia bukatutakoan, unitate kudeatzaileak txosten batean adierazi ondoren kontratua Udalak nahi zuen bezala bete dela edo ebatzi dela kontratistarena ez den erruarengatik.

19.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Dokumentazio administratiboan formalizatuko da kontratua, gehienez ere 15 egun naturaleko epean, esleipena eteteko epea bukatzen denetik hasita.

Aldez aurretik, esleipen-hartzaileak agiri hauek aurkeztu beharko ditu zazpi egun naturaleko epean, gehienez ere, esleipena jakinarazten denetik aurrera:

- Kontratuaren ondoriozko betebeharrak konplitzeko bermea Udalaren alde utzi izanaren ziurtagiria.
- Obra prozesuaren ondoriozko arriskuak estaltzen dituen aseguruaren prima ordaindu izanaren ziurtagiria eta aseguru poliza. Kalte-ordainaren gutxieneko muga lizitazio aurrekontua adinakoa izanen da.
- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, eraketa eskriturak eta elkarte horren IFK. Kontratuak irauten duen bitartean (iraungi arte) iraun behar du.
- Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan zehazten den Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Planaren bi ale.
- Obraren plana, kontratuaren hasierara eguneratua eta zehaztuko duena nor den arduraduna. Eskaintzaren epeei eta programazioari eutsi beharko zaie, pleguan xedatutakoarekin bat.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada epearen barnean formalizatzen, kontratazio organoak erabaki dezake kontratua ebaztea, interesdunari entzutea eman ondoan. Halakoetan, horrek kontraturako kalkulaturako zenbatekoaren %5 adinako zehapena ordaindu beharko du, baita kalte-galeren ordain osagarria ere,

portzentaje hori gaitzen duen ororengatik. Bestela, beste epe bat eman dakioke, luzaezina izanen dena.

20.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Kontratazio organoak obra hasi baino lehen onetsiko du Segurtasun eta osasun plana, betiere obrarako izendatutako segurtasun eta osasun koordinatzaileak, edo, bestela, zuzendaritza fakultatiboak, alde aurreko txostena egin ondoan.

21.- ZUINKETA EGIAZTATZEKO AKTA ETA OBREN HASIERA.

Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 167. artikuluan xedatutakoarekin bat, 7 eguneko epean kontratua formalizatzen denetik aurrera, obren zuinketa egiaztatuko dute Udaleko zerbitzu teknikoek eta kontratistak. Horren emaitza akta batean jasoko da.

Zuinketa egiaztatzeako akta egin eta biharamunean has daitezke obrak.

22.- PREZIOA ORDAINTzea ETA ZIURTAGIRIAK EMATEA

Kontratistak eskubidea izanen du egindako zerbitzuak kobratzeko, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 152. artikuluan eta hurrengoetan eta harekin bat heldu direnetan eta plegu honetan ezarri bezala.

Administrazioak hilero emanen ditu egindako obrari dagozkion obra ziurtagiriak, kasuan kasuko epea bukatu eta hurrengo hamabost eguneko epean, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 168. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Ziurtagiri horiek konturako ordainketak izanen dira, azken ziurtagiriaren emaitza egokia izanen delakoan.

Udalak kontratuaren prezioa ordaindu beharko dio kontratistari, hogeita hamar eguneko epean, obra ziurtagiriak ematen direnetik hasita, ezertan galarazi gabe Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 155. artikuluko arauak.

23.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 109. artikuluan ezarritakoarekin bat, kontratistak ez du eskubiderik izanen prezioak berrikusteko.

24.- KONTRATUA GAUZATZEA.

24.1.- Obra zuzendariak lanaren segimendurako idatziz emandako agindu eta instrukzioak betetzeko betebeharra du kontratistak, bai lanak egiterakoan bai eta exekuzio

moduan ere.

Administrazio kontratatzaileak, egoki ikusten duen pertsonalaren bidez, lizitazio honetan aurreikusitako lanen kontrola egingen du eta kontratistak obra zuzendariak egindako kontrola errazteko konpromisoa hartzen du.

Lanak klausula hauetan eta kontratuen oinarri diren proiektuetan ezarritakoari eta idatziz obra zuzendariak emandako aginduei erreparaturik egin beharko dira. Kontratista indarrean den legediak administrazio kontratatzaileari kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko onartzen dizkion gaitasunen menpe egonen da.

24.2.- Entitate esleipen-hartzaileak kontratu hau gauzatzeko erabiltzen dituen langileek ez dute inolako lan harremanik izanen Udalarekin, ulertzen baita esleipen-hartzailearen menpekoak direla soil-soilik.

Horrenbestez, entitate esleipen-hartzaileak lan, gizarte segurantzaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak konplitu behar ditu bere langileekin. Esleipen-hartzaileak betebeharrak horiek ez konplitzeak edo hark izendatutako teknikariek segurtasun arloko xedapenak urratzeak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko Udalari.

25.- GAUZAPENAREN BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan xedatutakoren babesean, honako hauek hartzen dira berariaz gizarte arloko baldintzatzat:

1.- Kontratua gauzatzeko, lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan lege, erregelamenduz eta hitzarmenez indarra duten xedapenak bete behar dira, eta, bereziki, enpresa kontratistaren jardura zer sektoretan kokatzen den, horren eremu apalenerako sektoreko azken hitzarmen kolektibo indardunak ezarritako baldintzak.

2.- Eskaintza ekonomikoa behar adinakoa izanen da esleipen-hartzaileak modua izan dezan kasuan kasuko hitzarmen sektoriala aplikatzearen ondoriozko kostuari aurre egiteko, baina aurreikusitako soldaten prezio/orduak ezin dira txikiagoak izan hitzarmenaren prezio/orduak baino (gehi Gizarte Segurantzaren kostuak).

3. Izaera sozialeko exekuzioaren baldintza berezitat ezartzen da esleipendunak honako betebeharrak izatea: inbertsioa egiteko behar diren lanaldi osoko kontratazio, baja eta ordezkapen berri guztien % 10 Gizarteratzeko Gutxienerako Errenta jasotzen duten pertsonen eta egoera ahulean dauden kolektiboari, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituztenei edo gizarte-bazterketako arriskua dutenei, emakumei edo 30 urtetik gorakoei edo 45 urtetik gorakoei.

Kontratutako lehenengo pertsonak talde horietakoren batekoa izan beharko du.

Kontratazioa Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez kudeatu beharko da.

Udalak eskatuta justifikatu beharko da baldintza hauek betetzen direla, eta hirugarren baldintzaren kasuan, kontratazioa egin bezain laster jakinarazi beharko da.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak eskatuko zaizkie kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratistei.

26.- KONPROMISOAK ETA BALDINTZAK BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA.

26.1.- Konpromisoak betetzea.

Udalak egokitzat jotzen dituen agiri eta datu guztiak eskatu ahal izango dizkio esleipendunari, eskaintzan adierazitako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, ikuskapen-jarduerak egin ahal izango ditu ondorio berberetarako.

26.2.- Gauzatzeko baldintza bereziak betetzea.

Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten langileen kontratazioa justifikatzeko, lan-kontratuak eta likidazioko TC1 eta TC2 agiriak aurkeztu beharko zaizkio Gizarte Segurantzari obrak egiten diren hilabeteetan.

27. EPEAK BETETZEA.

Kontratista beharturik dago kontratua betetzera ezarritako epearen barnean.

Kontratistari egotz dakizkikeen arrazoiengatik epea betetzen ez denean, kontratazio organoak erabaki dezake kontratua ebaztea edo hura betetzeko eskatzea, luzapen bat emanaz eta Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 147. artikuluan zehaztutako zehapenak ezarritik.

28.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua, interes orokorreko arrazoiengatik eta bere eduki funtsezkoari eragin gabe, – KPFLaren 114 artikulua bigarren eta laugarren ataletan arautzen diren egitateak gertatzen ez badira beti ere- ondoko kasuetan alda daiteke:

a) Arduratsua den erakunde esleitzailerak batendako aurreikusi ezinak diren gertaerak jasotzen direnean.

b) Aldaketaren zenbatekoa esleitutako zenbatekoaren %10a baino gutxiago denean.

Edozein kasutan, aldaketa guztien zenbatekoak ezin du inola ere esleitutako zenbatekoaren %50a gainditu.

Kontratuaren aldaketarako KPFLaren 143. artikuluan ezarritako prozedura segituko da.

Nolanahi dela, KPFLaren 144. artikuluekin bat, hasierako kontratuan aurreikusitako unitateak baino gehiago exekutatzea onartuko da

Modu berean unitate berriak sartzea onartuko da KPFLaren 171 artikulua ezarritako baldintzei jarraiki.

Bi kasuetan gastuaren igoerak ezinen du kontratuaren esleipen zenbatekoaren %10a gainditu. Esleipen zenbatekoaren %10aren igoera posible hau kontratuaren kalkulaturako balioan hartu da kontuan. Bi kasuetan kontratuaren aldaketa espedientearen egitea ez da beharrezko izanen.

29.- KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga edo azpikontratatu dakizkieke, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 108. eta 107. artikuluetan xedatutakoari jarraituz (hurrenez hurren).

30.- EZ BETETZEAREN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA.

30.1.- Zehapenen aplikazioa.

Kontratistak betetzen ez badu plegu honetan edo Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen zehaztutako baldintza eta betebeharrakoren bat, Udalak, interesdunari entzutea eman ondoan, hurrengo ataletako zehapenak ezartzen ahal dizkio, zehapena zerk ekarri duen.

30.2.- Zehapenak ezartzea dakarten jarduketak.

Kontratuen ondorioetarako, plegu honetan edo Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen zehaztutako betebeharrak urratzea dakarten ekintzak edo omisioak hartuko dira zehapena dakarren jarduketatzat.

Garrantziaren, proportzionaltasunaren eta asmoaren arabera, honela sailkatuko dira jarduketa horiek: arina, larria edo oso larria, irizpide hauei jarraituz:

- **Arina:** Honako hauek joko dira arintzat: kontratuaren funtzionamendua eta eraginkortasuna okertu, baina maltzurkeriazko jarduketaren ondorioz ez direnak edo arriskurik ekartzen ez dietenak pertsonen, animalien edo gauzei, edo egindako lanen bizitza ekonomikoa murritzten ez dutenak, edo erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez dietenak. Honako hauek, besteak beste:

- Ez egitea aldi bereko bisitak teknikariekin.
- Lanak hasteko jardun arrunta ez betetzea.
- Lanak berandu egitea edo etetea, baldin eta horren arrazoia esleipen-hartzaileari egoztekoa bazaio, betiere hiru egun baino gutxiago, edo betebeharrak zabarkeriaz edo

arretarik gabe konplitzea.

- Eragozpenak sortzea erabiltzaileei beharrik gabe.
- Hondakinak edo soberakinak ez kentzea berehala obra bukatu ondoren.
- Plegu honetako edozein betebeharrak ez konplitzea, larriagoa ez bada.

- **Larriak:** Honako hauek joko dira larritzat: ikuskapenak edo eskatutako lanak eta kontratuko eskakizunak gaizki egitearen ondorioz, eragin txarrak ekar ditzaketenak egindako lanen ekonomiaren gainean, edo eragozpenak eta arriskuak erabiltzaileen gainean, edo kalte larriak udalak kontratatutako lanei egin beharreko kontrolaren edo ikuskapenaren gainean.

- Hiru hutsegite arin kontratuak irauten duen bitartean.
- Edozein hutsegite arinen errepikatzea.
- Laneko segurtasun eta osasun neurriak ez betetzea.
- Kontratutako lanak edo zerbitzuak ez egitea.
- Kontratua kudeatzen duen unitateak hura gauzatzeari buruz ematen dituen aginduak ez betetzea.
- Ez betetzea eskaintzako baliabide pertsonalak edo materialak erabiltzeko kontratuan hartutako konpromisoa.
- Beharrezko diskrezioa ez gordetzea kontratua dela-eta ezagutzen dituen gaien inguruan.
- Partzialki ez betetzea kontratuan zehaztutako prestazioak.
- Kontratua berandu betetzea edo etetea, hiru egun baino gehiago eta hamabost egun baino gutxiago, baldin eta arrazoia kontratistari egoztekoa bazaio, edo zabarkeriaz edo arreterik gabe lan egitea etengabe.
- Kontratua ez formalizatzea epe barnean kontratistari egoztekoa zaion arrazoi batengatik.

- **Oso larriak:**

- Hiru huts-egite larri kontratuak irauten duen bitartean.
- Edozein hutsegite larrien errepikatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.
- Udalari iruzur ekonomikoa egitea, errealitatearekin bat ez datozen ziurtagiriak edo fakturak aurkezteagatik, edo beste edozein moduz, nahiz eta dolorik ez dagoen.
- Kontratua behar ez bezala eta akatsez betetzea, dela kalitateaz dela kuantitateaz.
- Deialdiaren dokumentazioan txosten faltsuak aurkeztea, esleipenerako edo exekuziorako behar diren ingurumen edo gizarte arloko irizpideei dagokienez.
- Azpikontratazioarako ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontratua berandu betetzea edo etetea, hamabost egun edo gehiago, baldin eta arrazoia kontratistari egoztekoa bazaio, edo obra uztea.
- Sekretu profesionalaren betebeharra edo datuak babesteko araudia ez konplitzea.
- Txostenetan faltsukeriak adieraztea.
- Nahita uztea elementu edo instalazio bat narriatzen.

- Aurkeztutako gizarte eta ingurumen arloko irizpideak ez betetzea.
- Plegu honetako exekuzio baldintza bereziak ez betetzea.
- Kontratuaren eskubideak eta betebeharrak lagatzea, kontratazio organoaren berariazko baimenik gabe.

Kontratistak kontratuko betebeharrak horiek ez konplitzeak ekarriko du kasuan kasuko espedientea irekitzea. Gero, entzutea emanen zaio, kontratazio organoak ebatzi baino lehen. Beherago zehazten diren zehapenak ezartzen ahal zaizkio, diru kopuru bera bermetik kenduz, edo, bestela, kontratuaren exekuzioan egiten den hurrengo ziurtapenetik.

Zehapenak ezartzeak ez du ezertan galarazten administrazioari kalte-ordaina ordaindu behar izatea arau-haustea dela eta.

30.3.- Zehapenen zenbatekoa.

Atzerapena: Atzerapen egun bakoitzeko kontratuaren hasieran edo kontratuaren exekuzioa etetean, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 147. artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da.

Gainera, zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Arau-hauste arinak: esleipenaren zenbatekoaren %1era arteko zehapena jaso daiteke arau-hauste arin bakoitzagatik.
- b) Arau-hauste larriak: esleipenaren zenbatekoaren %1,01etik %5era arteko zehapena jaso daiteke arau-hauste larri bakoitzagatik.
- c) Arau-hauste oso larriak: esleipenaren zenbatekoaren %5,01etik %10era arteko zehapena jaso daiteke arau-hauste oso larri bakoitzagatik. %20ra artekoa izan daiteke zehapen hori, baldin eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan kontratuak gauzatzeko aurreikusitako baldintza bereziak betetzen ez badira.

31.- OBREN HARRERA ETA AZKEN LIKIDAZIOA.

Obrak bukatu eta hurrengo 15 eguneko epean, obren harrera egingen da, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 172. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Azken likidazioa egiteko, foru lege horren 173. artikuluan ezarritakoa beteko da.

32.- KONTRATUAREN EBAZPENA.

Kontratuak ebazteko arrazoiak: Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 160. artikuluan oro har ezarritakoak eta lege horren 175. artikuluan berariaz ezarritakoak.

33.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENAK.

Kontratu honek izaera administratiboa du eta plegu honek erregulatzen du, baita horren baldintza administratiboei eta zehaztapen teknikoek ere, eta, horietan aurreikusten ez den orotan, hauek aplikatu beharko dira: Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

Plegu hau, eranskinak eta erantsitako gainerako agiriak kontratu izaerakoak izanen dira. Desadostasunik egonez gero pleguaren eta kontratu izaerako gainerako agirien artean, plegua nagusituko da. Orobat, kontratista esleipen-hartzailearen eskaintzak ere kontratu izaera izanen du, baita kontratua formalizatzeko agiriak ere.

Esleipen-hartzailea ez dago salbuetsita betebeharrak konplizetetik kontratuaren, gainerako kontratu agirien eta jarraibideen edo gauzapenean aplikatu beharreko araudiaren baldintzetako edozein puntu ez ezagutzeagatik.

Kontratazio organoak du eskumena kontratua interpretatzeko, hura betetzean sortzen diren zalantzak argitzeko, hura aldatzeko interes publikoko arrazoiengatik, hura ebaztea erabakitzeko eta horren ondorioak zehazteko, hori guztia Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean zehaztutako baldintzak eta eraginak betez eta horren mugen barnean.

34.- ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK.

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta, hortaz, contratazio organoak ebatziko ditu, lehendabizi, betebeharrak konpliztearen ondorioz eta xedapen hauen interpretatzearen ondorioz sortzen diren gorabehera guztiak.

Plegu honen kontra eta hura betetzeko ematen diren ebazpen guztien kontra, errekurtsio hauek para daitezke:

Berraztertze errekurtsioa, Beteluko Udalean egintza administratiboa egin duen organora zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, edo, kasua bada, errekurritzen den egintza argitaratu eta biharamunetik hasita.

Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa, Kontratu Publikoen Auzitegira zuzendua, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat; horretarako, ezinbestekoa da lizitatzailerik posta elektronikoa ematea, jakinarazpenak modu telematikoen bidez egiteko.

Gora jotzeko errekurtoa, administrazio auzitegietara zuzendua, hilabeteko epean errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.

Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegira zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

35.- KONFIDENTZIALITASUNA.

Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentziasunari eutsi beharko dio kontratistak. Bost urteko epean eutsi beharko dio, informazioaren berri duenetik aurrera.

Ezin izanen da enpresarioen informaziorik zabaldu horiek konfidentzialtzat jo badute. Ondorio horietarako, lizitatzailleek adierazi beharko dute, erantzukizuneko aitorten batean, zer dokumentazio proposatzen duten konfidentzialtzat hartzeko. Proposamen osoa ezin da konfidentzial hartu. Hala eginez gero, kontratazio organoak, arrazoiak emanez, zehaztuko du zer dokumentazio ez dagoen sekretu teknikoan edo merkataritzakoen menpean.

I. ERANSKINA

LIZITATZAILEA(K) IDENTIFIKATZEKO EREDUA ETA POSTA ELEKTRONIKOAREN HELBIDEA JAKINARAZPENAK EGITEKO

ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEA

..... jaun/andreak, NANA/IFZ:
....., helbidea, jakinarazpen ondorioetarako:
..... (PK:, herria:), telefonoak:
....., faxa:, bere izenean edo
..... sozietatearen izenean (IFK:) (behar ez
dena ezabatu).

ADIERAZTEN DU:

– Honako hau dela posta elektronikoaren helbidea baliabide telematikoen bitartez jakinarazpenak egiteko, kontratazio publikoaren arloan erreklamazioak eginez gero:

.....

– Kontratazioaren plegua ezagututa, konpromisoa hartzen duela hari eta aurkeztutako eskaintzari atxikita gauzatzeko kontratazioa, eta, horretarako, gutun-azal hauek eranstean dituela:

- 1. GUTUN-AZALA: "Dokumentazio administratiboa".
- 2. GUTUN-AZALA: "Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa".
- 3. GUTUN-AZALA: "Formula bidez kuantifikatzen ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa".

.....(e)an, 20....koaren ...(e)an.

– LIZITATZAILE(AR)EN SINADURA

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNEN ADIERAZPENAREN EREDUA KONTRATAZIO-RAKO ESKATZEN DIREN BALDINTZAK BETETZEKO

ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEA

..... jaun/andrea. NAN/IFZ:.....
Jakinarazpenak egiteko helbidea:
P.K., Herria
telefonoak
___, bere izenean edo sozietatea ordezkatzuz (behar ez
dena ezabatu)
IFK

Bere erantzukizunpean adierazten du:

- Betetzen ditudala/ordezkatzeko dudako entitateak betetzen dituela (adierazi dagokiona) kontratazeko baldintzak, eta ez dudala/duela Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikulutik 26.era bitarteko debekurik urratzen.
- Konpromisoa hartzen duela, esleipen-hartzaile aukeratuz gero, zazpi eguneko epean frogatzeko, esleipena jakinarazten denetik aurrera, plegu honetan eskatutako agiriak badituela eta baliokoak direla.
- Konpromisoa hartzen duela kontratua sinatu aurretik eskatutako agiriak aurkezteko, kontratazioa erregulatzen duen baldintza administratibo partikularren pleguan zehaztutakoari jarraituz.
- Bere xedeak edo jarduerak lotura zuzena duela kontratuaren xedearekin eta beharrezko langileak eta materialak dituela kontratua behar bezala gauzatzeko.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak konplituak dituela, baita laneko segurtasun eta osasun arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarreko xedapenak ezartzen dituzten betebeharrak ere.
- Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala baduela.

– Honako dokumentazio hau jotzen duela konfidentzialtat:

.....(e)an, 20....koaren ...(e)an.

LIZITATZAILE(AR)EN SINADURA

III. ERANSKINA

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATZEN AHAL DEN ESKAINTZAREN EREDUA ARAXES ESKUALDEKO IKATETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEA

..... jaun/andrea. NAN/IFZ:

Jakinarazpenak egiteko helbidea

P.K., Herria

telefonoak

, bere izenean edo sozietatea. ordezkatuz (behar ez dena ezabatu)

IFK _

Konpromisoa hartzen du ondoren zehazten den eskaintzari jarraituz egiteko obrak:

1) Eskaintza ekonomikoa: (adierazi zenbakiz) –BEZ barne eta kanpo–.

2) Kontratazio, baja eta ordezkapen berrien kasuan erakunde lizitatzailleak konpromisoa hartzen du kontratuaren gauzapenean enplegatze enplegu-bulegoetan izena emanda dauden langabetuen kontratazioa egiteko, eta kontratazioan lehentasuna emango die honako hauei: gizarteratze-errenta jasotzen dutenei, egoera ahulean dauden kolektiboetako pertsoneri, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituztenei edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskua dutenei; emakumeei edo, 30 urtetik beherako pertsoneri edo 45 urtetik gorakoei. Kontratuaren iraupen guztian gutxienez kontratazio berrien %..... hartzeko konpromisoa.

.....(e)an, 20....koaren(e)(a)n.

LIZITATZAILE(AR)EN SINADURA

EGINBIDEA:

Araxes eskualdeko ikastetxe publikoan igogailua jartzeko obren exekuzioa kontratatzeko plegu arautzailea hau Beteluko Udalbatzak 2022ko ekainaren 16an egindako bilkuran onartu zuela egiaztatzeko.

Alkatea.

Idazkaria,

Miguel Javier Recalde Goldaraz

Joanes Aleman Ollo